

K...eta
itto!

2016-11-5

960 zkia.

**KOKO-JANTZIEN
JAIA**

**Ezetz
ezagutu!!!**



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Miopia, katarata eta prezbiziaren kirurgia
Begi lehorraren tratamendua





ARATOSTIETAKO...

GURE BARKU-PIRATA!

benetako abentura!

Arakpe

Gastro-Pub

m

AMETSA

Ikertu gurekin: onena asmatuko dugu

ALKIMISTAK

TAS-TAS

IN RIO

2016

CARNAVAL

Tas-Tas

Kultö:

Etorri gure oihanera...

...tribu polita osatzeko!

KATU KALE

Aikereren abenturak Lurralde Miresgarrian

TXOKO

TXOKO

GORA... Euskal Aratosteak

ARATOSTEETAKO LEHIAKETA

Aratosteetan giro edo dekorazio onena duen **TABERNA**



Astekari honetan publizitatea jarri dutenen artean, aukeratu zuri gehien gustatu zaizuna:

- ✓ Ametsa
- ✓ Arkupe
- ✓ Beleko
- ✓ Bossa
- ✓ Buenos Aires
- ✓ Depor
- ✓ Ez Dok
- ✓ Guridi
- ✓ Hirurok
- ✓ Katu Kale
- ✓ Kultu
- ✓ Tas-Tas
- ✓ Txoko
- ✓ XOK

parte hartzeko...

Giro edo dekorazio onena izan duen taberna aukeratzen laguntzeagatik ...etakitto!ko **bi kamisetaren** zozketan parte hartuko duzu.

Parte hartzeko:

www.facebook.com/etakittoaldizkaria helbidean sartu eta **"atsegin dut"** eman gustokoen duzun tabernaren argazkian.

Azken eguna: **eguztena 10**





Euskara Elkartea

ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea.

HELBIDEA:

Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:

erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:

elkartea@etakitto.eus /
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Jose Luis Gorostegi, Silbia
Hernandez eta Uxue Igarza.

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte.

KOORDINATZAILEA:

Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez.

DISEINUA ETA

MAKETAZIOA: J.L. Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe eta S. Hernandez.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia
eta M. Aranberri.

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

TFNOA: 943 20 67 76.

AZALEKO ARGAZKIA:

Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz.

TIRADA: 8.050 ale.

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.

ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzukizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

eskutitzak

Nire mobila bueltatu zuenari esker ona

Eibarko komisarian nire mugikorra entregatu duenari nire esker ona helarazi nahi diot bihotz-bihotzez. Domekan Kalamuan, tontorrean ahaztuta laga nuen, Basauriko Baskonia mendi taldearekin batera Trabakuatik Etxebarriaraino, Mendibil-Urko-Akondia-

Kalamua mendi ibilaldia egin nuenean. Konturatu nintzenean atsekabe handia hartu nuen, baina mugikorra bueltatu zuen lagun anonimo horri esker orain benetan pozik nago. Milesker berriz ere!

Mari Nancy Marmu

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KULAPE EMON.- Amodio kontuetan, ezezkoa eman. Dantzan ezetz esatea ere bada. Gazteleraz, 'dar calabazas'. "Halakoren baten ausartu zan errekaue egittera begixa jota eukan neskatilliri, eta kulape emon zetsan".

KULIANDA.- Landu gabeko kaxa edo kulata. "Kulianda dotorienak beti intxaurrakin egitten dittuk".

astean esanak

"Lotsa ematen dit artea nola dagoen ikusteak. Pieza bat sortzera bultzatzen zaituen kanpo eskaririk ez dago, zeure desira zeuk probokatu behar duzu. Mingarria ere bada Tabakalera erabiltzea Kalostra desegiteko. 'Ala bata ala bestea' esan dute, baina Tabakalera ez dute proiekturik, edukiontzia bat dute eta, ez dakitenez zer egin harekin, eta bazutenez funtzionatzen zuen beste gauza bat, ba nahi izan dute funtzionatzen zuen hori Tabakalera eraman esan ahal izateko han zerbait dagoela"

(TXOMIN BADIOLA, ARTISTA)

"Irakasle izan naiz luzez, eta egia da asko irakurtzen dela, baina eskolako zirkuituan, irakasleek behartuta. Baina unibertsitatera edo lanera joaten direnean, irakurtzeari laga egiten diote; eta, ez badiote uzten, salto egiten dute gaztelerara"

(JOXE MARI ITURRALDE, IDAZLEA)

"Euskal irakurleak 15.000 edo 20.000 inguru izan daitezke. Beste gizarte batzuetan ere idazle eta irakurle portzentajea oso txikia da, %20 ingurukoa; eta hor sartzen dira irakurle klase guztiak. Lauaxetak norentzat idatzi zuen ba? Laurentzat! Ba argi dago igo dela irakurle potentzialen kopurua"

(UNAI ELORRIAGA, IDAZLEA)

"Biblia hiltzera doazen suiziden pasarte asko dago. Kristok bazekien zertara zihoan, hiltzera zihoala, eta suizida zela; baina ez zen gaitzesten, onartzen zen bere bizia eman zuela jendeagatik. Bibliakoak suizidio altruistak dira. Suizidioaren gainean ezartzen den estigma Judasengandik aurrerakoa da: kontzientziak eragindako harragatik urkatu zuen-eta bere burua. Eta horrek deabruzatu zuen hainbeste, non Antzinaroan *mors voluntaria* esapidea existitzen zen, zeure eskuz hiltzea, baina XVII. mendean suizidio hitzak asasinatzea adierazten duen, horren karga ideologikoarekin"

(RAMON ANDRES, SUIZIDIO IKERTZAILEA)



ENRIKE SOSOLA

Baserria salgai

Gisastu baserria izan da oraingoan. Salgai jarri zuten eta, kostatu den arren, badu ugezaba berria. Egoera kakkarrean zegoen eta, zaharra bota ondoren, etxe berria eraikitzen ari dira. Eibarko zulotik irteteko aukera aparta, eta kaletik ez oso aparte. Apustu handia bizilagunena, ez zen-eta inbertsio txikia izango, endemas krisiaren zaratak ixildu gabe daudela oraindik. Lehengo jabeak bere dirutxo aterako zuen; jakina, harek ere bere premiak izango ditu, zelan ez ba! Eibarren oraindik bada baserri-jabe gehiago erosle bila dabilena. Baina onuragarria ote da holakorik gertatzea herri ikuspegitik? Ezetxean nago. Baserria ez baita etxebizitza bakarrik. Baserrian, etxebizitza eta bere terrenuak bat dira. Lur-sailak bizibide dira, lan tresna. Kaleko diruak baserria erosten duenean, lurzorua batezbesteko prezioaren igoera demasa da. Lur-jabeak aberastasun handia duela uste du eta espekulazioari ekiten dio. Nekazaritzako irabaziekin ezinezkoa da lur-sailok erosi edo errentan hartzea. Inguruko baserriarrak edo sektorean hutsetik hasi nahi duenak ezin ditu lur-baliabideok erabili. Bada irtenbiderik? Bada, bai. Orain ere iparraldera begira jarri behar. Han, lege baten arabera, baserria salgai dagoenean, "estatuak" interbenitu egiten du. SAFER egiturak bitartekari lanak egiten ditu, ganoraz tasatu ondoren nekazaritzako lurak nekazarien esku gera daitezten. Horrela, salerosketan baserriarrak dauka beti lehentasuna. Eta, horretaz gain, gure iparraldeko anai-arreba hiperaktiboek **Lurzaindia** sortu berri dute. Goiko egiturak ez duenez nahikoa ondo funtzionatzen, herriarrek erosketa kolektiboak egiten dituzte, gero erositako lurrok nekazari bati errentan lagatzeko. Lurra espekulaziotik erreskatatzeko herri-ekimena da. Horra hor Eibar hiri aurrerakoiak bere izaera bide-urratzailea erakusteko aukera aparta, eta hau ere ez hain apartekoa.

Hasi dira Errebal eraldatzeko biharrak

Astelehenian hasi ziran Errebal eraldatzeko biharrin Dragados S.A. eraikuntza etxe-kuak. Horretan erabiliko daben aurrekontua 4.093.126 eurokoa (BEZ barik) da eta Errebalgo biharrak 21 hillebeteko epian amaittu biharko dittue. Aparkatzeko erabili dan tokian erabilera anitzetarako eraikiña eta aisialdirako hainbat gune jasoko dittue eta diseiñurako oiñarrixa "Vaumm Arquitectura y Urbanismo SLP" etxiak egindako "Errebal Ireki" izeneko proiektua izango da: erabilera ludikorako zein azokarako guniak 2.600 metro karratu beteko ditte, baiña aurretik solairu biko aparkalekia egingo dabe: bigarrenian inguruan bizi diranendako 103 aparkaleku sortuko dittue eta, horrez gain, txandaka erabiltzeko beste 90 aparkaleku gehixago egingo dira. Eta erabilera anitza izango daben aisialdirako gune barrixak, bestalde, 700 metro karratu inguru izango ditte.



asteko
42.000
datua

euro bideratuko ditte udalak, 55 urtetik gorakuak kontratatzen dituen enpresa txiki eta ertaineri laguntzeko. Kontratuak gixxienez 6 hillebetekuak izan biharko dira; soldata zein gizarte-segurantzak kostuen %75 arteko laguntzak izango dira eta bakotxari gehixen jota 6.000 euro emongo detsez.

Museuak 4.832 bisita jaso zittuan iaz

Armagintzaren Museuak sekula baiño bisita gehixago jaso zittuan iaz, 4.832 lagun guztira. 2004. urteko datuekin konparatzen hasiz gero, bisita kopuruak %25 egin dau gora (3.517 bisitari hartu zittuen 2014an). Portalean atiak zabaldu zittuanetik, 2015. urtian lortu dabe emaitzik onena eta, arduradunak diñuenez, "seguruenik urtian zihar antolatutako aldi baterako erakusketa berezixak, presentaziñuak eta bestelako topaketak (tartian BOJ Olañeta enpresaren 110. urteurrenaren ingurukua) horretan lagunduko eben". Udazkenian eta udabarrizan ibilli da jende gehixen eta bisitan juandakuen artian urrutitik etorritakuak (tartian Errusia, Argentina eta Chicagoko turistak) be hartu zittuen. Museuak eguaztenetik zapatara bittartian arratsalde, 16:00etatik 20:00etara zabaltzen ditte atiak eta domeketan, barriz, goizeko 10:00etatik 13:00etara.



Presuen aldeko konzentraziñua



Aurreko asteko eguenian Debaldeako LABeko ordezkariak euskal preso eta iheslarixen etxeratzea eskatzeko Soraluzen bildu ziran, hilleroko martxari jarraituta konzentraziñua egitteko. Sindikatuko ordezkariak mobilizaziñuekin segiduko dabe eta hurrengo alkarrataratzia (otsaillekua) Debagoienian izango dala aurreratu deskue.

Bedeinkatutako sanblasak ezta rixxa zaintzeko

Eguaztenian, San Blas egunian, Eibarren ondo errotuta dagan ohiturari eutsi zetsen askok eta sanblas opillak, egun batzuetan paparrarian lotuta eruateko sokekin batera bedeinkatzera eruan zittuen, holan santuak ezta rixko gaitzetatik babesteko. Eibartar guztiak sanblasak bedeinkatzeko aukeria eukitzeko, meza berezixak eskindu zittuen herriko eliza guztietan.



Isabel Huertak irabazi dau lehiaketia

Arrate Kultur Elkartekua antolatuta, eguaztenian San Blas opillen lehiaketia egin zan Topalekuan. Parte hartzera animau ziran 14 lagunak etxian egindako sanblasak eruan zittuen eta, epai-mahaiko kidiak danak probau eta gero, sarixa (bertoko produktuekin betetako otarra) Isabel Huerta Ortuosteri emotia erabagi eben. Zorionak!

Bestalde, lehiaketa egunaren aurretik, san-

blasak egitten ikasteko aukeria euki eben aurreko zapatuan, Arrate Kultur Elkartek antolatuta egin zan ikastaruan. Dozenatik gorako taldiak goiz osua emon eban sukaldian, opillak egitteko masa lantzen, laban egosten eta opillari gaiñetik botatzeko zurixa preparatzen, baiña biherra amaituta primerako sarixa euki eben: San Blas opil goxo-goxuak eta, gaiñera, norberak egindakuak!



autuan

ETXEBERRIAREN DISEIÑUAK

Roberto Lopez Etxeberria eibartarrak 2016-2017 udazken/negurako bilduma barrixa, "La miel es mas dulce que la sangre" izenekua, MBFWMadrid pasarelan presentauko dau otsaillaren 21ian, 15:30xetik aurrera. Gonbidapenak eskatzeko info@etxeberrria.com.es helbidera idatzi leike.

IBILGAILLUEN ZERGA

Ibilgailueri lotutako zerga borondatez ordaintzeko epia martxuaren 10ian itxiko da. Helbideratutako errezibuen kasuan, azken egun horretan kobrauko dabe, aurretik emondako kontu zenbakixan. Eta helbideratu gabekuak Kutxabank, Laboral Kutxa, Banco Sabadell-Guipuzcoano, Banco Bilbao Vizcaya Argentaria, Banco Santander, Bankoa, Nafarroako Rural Kutxa eta La Caixa-ko edozein bulegora juanda pagau leikez. Internet bidez pagatzeko aukeria be badago.

DESCUBRE-TE

Teak, kafeak, txokolateak, ezta... eta baxera bereziak!!

Probaleku, 4-Bis (ERMUA) 943 03 15 81
descubretenew@hotmail.es www.teteriadescubre-te.com

Lehen jaunartzerako eta ezkontzetan erresak eramateko JANTZIAK

ume eta gazte
Kopina
moda

f kopinamoda
San Agustin, 3
943 204 181

Sahararako 5.600 kilo janari bildu dittue

“Sahararen Aldeko 12. Euskal Karabana: Piztu Itxaropena!” kanpainaarekin bat eginda, Eibar-Sahara alkartekuek kanpamentuetara bidaltzeko janarixa eta premiñazko beste produktu batzuk bil-tzen ibilli dira eta aurten marka guztiak apurtu dittue, Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Deban lagundu daben jendiari esker 5.600 kilo janari batzia lortu dabe eta. Horrekin batera, kanpainaaren harira

ikasliendako marrazki lehiaketia be antolatu dabe aurten. Lanak entregatzeko epia itxitta, kategorixa baktotxerako saridunak aukeratzeko biharrian hasitta dagoz epai-mahaixa osatzen daben Eibar-Saharako kidiak eta Eibar foball taldeko jokalarixak. Datorren astian, hillaren 13an marrazki guztiak Untzagan ikusgai ipiñiko dittue eta sarixak be orduantxe banatuko dira.



Sailburua eta berarekin etorritakuek Armagintzaren Museuan eta Ipurua foball zelaixan izan ziran.



Turismo sailburua bisitan

Itziar Epalza sailburua eskualdeko bisitan etorri zan aurreko astian, Mertxe Garmendia Turismo Zuzendarixak eta Arantza Madariaga Basquetourreko zuzendarixak lagunduta, Debegesak gure eskualdia bertatik bertara ezagutzera etortzeko gonbidapenaren harira.

Ekimenaren asmua “*sektore turistikuak eskualdian izan daben billakaeriari merezi daben garrantzixa emotia, eskualdiak eskintzen dittuan baliabide turistikuak ezagutzia eta etorkizunera begirako proiektuak azaltzia*” dala azaldu dabe arduradunak. Gure herrixan ekin zetsen ibilbidiari: Ipurua foball zelaixa eta Armagintzaren Museua ikusi zittuen eta, jarraixan, eskualdeko beste toki batzuk ezagutzera juan ziran.

Lesbosera errefuxiatueri laguntzera

Ane Ojanguren eta Manu Ledo eibartarrak martxuan Greziako Lesbos irlara bidaiatzeko asmua dake, itsasoz etenbarik aillagatzan ari diran errefuxiatueri harreran egitten laguntzeko. Martxuaren 18tik 31ra bittartian jardungo dabe horretan, oin dala gitxi Koro Gabiola eta Iñaki Iraola boluntarixo elgoibartarrak egon ziran tokixan. Biktoria Grezian emon zittuen egunetan ikusi zittuen premiñarik haundiñak (sendagaixak, janarixa, berogailluak...) azaldu detsez eta, eta hórretxek GKE-ien bittartez bideratzeko asmua dake. Baten batek dirua emonda lagundu nahi badau, Kutxabanken, ES78 2095 5035 0091 kontuan sartzeko aukeria daka.



Manu Ledo eta Ane Ojanguren.




Kirol diferentia praktikatzeko gunia izango da zezen-plazan.

Zezen-plaza kirolgune bihurtzen

Saskibaloirako kanastak eta bestelako kirol ekipamenduak zezen-plazan ipintzeko biharrik amaitzeko gitxi falta da eta, udalian esan deskuenez, “*inauguraziñua otsailleko zapaturen batian egingo dogu, ahal dala Multikirolak programiarekin alkarlanian preparautako ekitaldixa antolatuta*”. Hortaz, hillebetia amaittu aurretik kirol diferentia praktikatzeko gunie barrixa eukiko dau herrixak.

TUTULUMENDI




IDURRE IRIONDO

32 millioi euroko aurrekontu proposamena

Eguaztenian presentatu eben gobernu taldekuak 2016rako egin daben aurrekontu proposamena. Alkatiak azaldutakuari jarraituta, beste alderdixeri entregau detsen proposamenak urte osorako 32 millioi euroko presupuestua aurreikusten dau eta zirriborrua osatzerakuan "hiru ardatz nagusiri" begiratu detse. Lehen ardatza bizi kalidadia hobetzera bideratutakua da eta egingo dittuen inbersiñueri zuzen-zuzenian lotuta doa. Inbersiñuetan 6'5 millioi erabiltzia penstsatzen dabe eta, horren barruan, Errebalgo biharretarako erabilliko dittuen 2'3 millioiak dagoz. Beste 1'9 millioi akzesibildadia eta beste hainbat hobetzeko biharretan gastatzia aurreikusten dabe. Bigarren ardatza Gizarte Politikari lotutakuak osatzen dabe (premiñia balego Larrialdirako laguntasunetarako dagan kopurua haunditzeko prest dagoz, Kooperaziñorako lagun-



tzeri eutsiko detse...). Eta hirugarren ardatzak Garapen Ekonomikuekin lotura zuzena dauka (bestiak beste, basarritik bizi nahi dabeneri zergak merketzia, ikasketak amaitzen dittuena herrixan geratzeko bekak...). Beste alderdixak alegaziñuak presentatzeko epia zabalik dago eta, euren arteko negoziaziñuak dakan eritmuaren arabera, martxoko lehen asterako aurrekontua plenuan onartzeko moduan egotia espero dabe.



Oposiziñoko hiru alderdixak aurrekontu zirriborruan enplegua sortzeko proposamenak falta dirala penstsatzen dabe.

Aurrekontua hobetzeko biharrian

Oposiziñoko alderdixak alkatiaren eskutik jasotako aurrekontuaren zirriborruari aldaketak eta zuzenketak egitteko biharrian hasitta dagoz, baiña edozelan be hiru taldiak alegaziñuak aurkeztuko dabela areratu dabe. Bilduko ordezkariak diñuenez, proposamenak ez daka herrixan daguazen erronka sozio-ekonomikuendako erantzunik eta hori aldatzeko proposamenak lantzen dihardue. EAJ-PNV alderdikuak, barriz, ekonomixari bultzadia emoteko proposamenak sortzen ahaleginduko dira. Eta Eibar Irabaziko ordezkariak be alegaziñuak presentatzeko asmua daka: Eibarrerako enplegu plana sortzeko premiñia daguala diño eta, horrekin batera, herriko autonomo eta enpreseri mikroredituak emoteko udalari "banka publikua" sortzia eskatuko detsa.

Izadi
LORADENDA
 - Lora eta landare natural eta lehorrak
 - Ezkontzetarako lorak
 San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

San Andres Gozotegia
 ● **tartak**
 ● **enkarguak**
etxera
 Bidebarrieta, 28
 ☎ 943 20 79 73

II. GILDA-LEHIAKETA 2016



II. Gilda-lehiaketan izena emateko epea zabalik dago

...eta kitto! Euskara Elkarteak Euskeraz Primeran! kanpainaren barruan antolatu duen II. Gilda-lehiaketan izena eman nahi duten tabernek, otsailaren 10era arte izango dute horretarako aukera. Aurten martxoaren 3 eta 4an egingo da lehiaketa, eta iaz moduan sari bi izango ditu: epaimahaiarena (150€) eta herritarrena (150€). Herritarrek botoa eman ahal izateko bozketa-kutxak izango dira tabernetan, eta botoa ematen duten herritarren artean bi pertsonentzat afaria zozketatuko da. Aurtengo epaimahaia Mireia Alonso, losu Mugerza eta Josu Gimenezek osatuko dute. Iaz 27 tabernek hartu zuten parte lehiaketan; epaimahaiaren saria Amañako Jantaedan-ek eraman zuen, eta herritarren berriz, Koskorrek.



NOIZ: 2016ko martxoaren 3 eta 4an.

NORENTZAT: **Euskeraz Primeran!** kanpainan sartuta dauden tabernetzat.

LEHIAKETA-OINARRIAK:

- 1.- Taberna bakoitzak **gilda bakarra** aurkeztu ahal izango du lehiaketara. Nahi dituen osagaiak erabiliko ditu, baina **GILDA** izan beharko da.
- 2.- Lehiaketara aurkeztuko den **gilda**, ...eta kitto!-k emandako txartelaren bidez identifikatuko da.

3.- Lehiaketara aurkeztuko den **gilda** asko jota **euro baten salduko da**.

4.- Izen-emateko epea: **Otsailaren 10era arte**.

5.- Lehiaketan parte hartuko duten tabernek aurkeztuko duten **gildaren argazkia** ...eta kitto!-ra bidali beharko dute **hilaren 17**rako, katalogoa egin ahal izateko, **whatsapp** bidez (688 85 95 59) edo **emailez** (komunikabideak@etakitto.eus).

6.- ...eta kitto!-k eramango ditu tabernetara bozketarako kutxak eta orriak, eta martxoaren 5ean jasoko ditu.

SARIAK:

- 1) Epaimahaiaren saria: **150€**
- 2) Herritarren saria: **150€**

EPAIA: Martxoaren 9an jakinaraziko da.

Harremanetarako deitu **943200918** telefonora.

JAKOBA ERREKONDO usurbildarra nekazaritzako ingeniari teknikoa eta paisajista da. Inguru baserriar batean hezi zen arren, kaletarra da. Paisaia kulturaletan aritzen da baina, horrez gain, 31 urte daramatza Euskadi Irratian, zapatuero "Landaberri" saioa egiten eta hogei urte Argian landareei buruz idazten. Iazko urtean argitaratu zuen liburua, "Bizi Baratzea - Garaian Garaikoa Garaiz - Eman Eta Hartu" aurkeztuko du **otsailaren 9an, ...eta kitto!-n arratsaldeko 19:00etan.**

"Euskaldun bat inoiz ez da kultua izango baratzeaz ez badaki"


– Zer kontatzen duzu liburuan?

Baratzeek gure kulturen zer garrantzia duten azaltzen dut eta historia ere bai; izan ere, baratza ez da bakarrik baratziak hazteko toki bat, gauza askoz zabalagoa da. Horrez gain, baratzeen inguruko gauza orokorrak aipatzen ditut: ongariak, gaitzak eta izurriteak, ilargiak duen eragina, animalia laguntzaileak zeintzuk diren, egutegiaren arabera noiz eroin... Amaieran, hiztegia ere sartu dut, euskaraz ikaragarriko hitz-aberastasuna dugulako esparru horretan.

– Zein publikori zuzenduta dago?

Nolabait esateko, hiru publikorentzat pentsatutako liburua da. Alde batetik, baratze batekin hasi nahi duenari oinarritzko gauzak azaltzen dizkiot. Bestalde, baratze bat duenarentzat eta bertan sakondu nahi duenarentzat. Eta, azkenik, badago beste publiko zati bat sekula ez duenik baratze bat jarriko, baina nolabait uste duena gure kulturen kontu hau garrantzitsua dela. Liburua idatzi nuenean erraztasuna bilatu nuen eta horregatik sartu nituen testu laburrak hizkuntza errazean, izenburu eta argizki askorekin.

– Arrakasta handia izan du liburuak...



Bai. Nik salduko zela pentsatzen nuen, baina ez hainbeste. Egia da jendeak ikaragarriko harrera ona egin diola. Uste dut momentu egokia izan dela liburuarentzat. Indar handia ematen du jendea pozik ikustek aurrera egiteko.

– Zenbaterainoko garrantzia dute ortuek gure kulturen?

Nik beti esaten dut euskaldun batek nobelak irakurri ditzakeela edo musika asko entzun, baina euskaldun bat inoiz ez dela kultua izango baratzeaz ez badaki.

– Eta nola ikusten duzu egungo egoera?

Jendea gero eta gehiago sartzen ari da mundu honetan. Azken lau urteotan, adibidez, Gipuzkoan mila familia baino gehiago jarri dira herri-baratzeak lantzen. Herri-baratzeak udalak emandako lur sailak dira eta gero eta gehiago zabaltzen ari den jorera da, indartu beharrekoa.

"Azken lau urteotan Gipuzkoan mila familatik gora jarri dira herri-baratzeak lantzen udalak emandako lur sailetan"

– Edozeinek eduki dezake ortu bat?

Noski. Munduan dagoen gauzarik errazena da baratze bat edukitzea, erraz ikasten da eta, gainera, uste dut ikaragarriko satisfakzioak ekartzen dituela epe motzean. Kalitatezko produktuak ekoizteaz gain, baratzeak gauza asko ematen ditu.

– Eta tokiari dagokionez?

Baratzea etxeko leihoko txoko batean eduki dezakegu hiru loreontzitan, edo terrazan, edo balkoian... Lehen esan bezala, oso erraza da.

– Irratiko saioa nolako izaten da?

Zapatuero kontsultategi antzekoa izaten da. Landareei buruzko euskaldunen jakintza jaso eta zabaltzen dugu. Deitzen dutenak profil desberdinetakoak izaten dira; baserriarrak, baratzeak dituztenak, basoak edo fruta-arbolak dituztenak, ...

– Otsailaren 9an hitzaldira joanko direnek zer ikasteko aukera izango dute?

Liburua aurkeztuko dut eta sortzen diren galderei erantzun diet. Niri jendea gerturatzeko gustatzen zait, eurek galderak egitea ... Batez ere, denon artean ikasteko aukera edukiko dugu, bakoitzaren esperientziak elkarbanatuz eta tokiko hitzak eta kultura ikasten. Ni ikastera joaten naiz beti.

Haritz Garro (AEBtan Ekonomia Doktoretza egiten)

«Espainian gizarteak merituak eskatzen ditu futbolean, baina ez unibertsitatean»

2012an amaitu zituen Ekonomia ikasketak EHUen eta 2014ra arte Madrilan egin zituen master-ikasketak. 2014ko abuztutik AEBtan ikasten dihardu, Northwestern unibertsitatean, Evanston-en. Chicagotik oso gertu, Michigan lakuaren parean dago kanpua. Ekonomian doktoretza egiten ari da: "Normalena da doktoretzak 6 urte irautea". Haritzek Fundació la Caixa beka lortu zuen doktoretzako lehenengo bi urteetarako eta harek ordaintzen dio soldata. Horrela, "Doktoretzako klaseetan eta nire ikerketa proiektuan" burubelarri dago zentratuta.



- Doktoretza amaituta, bertan geratzeko asmoa duzu? Zenbatero etortzen zara Eibarrera?

Nire asmoa AEBtan geratzea da, unibertsitate batean ikertzen. Epe luzean agian bueltatuko naiz, baina momentuz ez daukat hori buruan. Gabonetan eta udaran izaten naiz Eibarren normalean.

- Horko hezkuntza-sistematik zerk ematen dizu inbidia gehien? Alde handia dago hemengoarekin?

Urtero hogeit bat ikasle onartzen ditu Northwestern-ek ekonomian doktoretza egiteko, estatubatuarrak laurdena. Munduko toki guztietakoak gaude. Kultura oso ezberdinetakoak izateka asko aberasten gaitu. Hezkuntza-sistemari dagokionez, desberdintasuna baliabideetan dago; horri esker, Northwestern puntako ikerlariak fitxatzeko gai da. Doktoreak kontratatzeke sasoian, AEBtako goi mailako unibertsitateek Espainiako futbol taldeek bezala jokatzen dute, talentua erakartzeko lanean. Oso sistema meritokratikoa da. Espainiako unibertsitate-sistema, aldiz, nahiko endogamikoa da: hor ohikoa den moduan unibertsitate batean doktoretza egin duena ge-

ro bertan kontratatzea, AEBtan hori ez da onargarria. Espainian gizarteak exijitzen du meritokrazia futbolean, baina ez unibertsitatean.

- Zerk deitu dizu atentzio gehien AEB-etan?

Unibertsitateen kirol-ligei, bereziki saskibaloian eta amerikar futbolean, ematen dieten garrantzia. NBAk bezain besteko atentzioa eragiten dute bai zaleen zein telebisten aldetik. Hori bai: juergarako beta gutxiago dago hemen Eibarrekin konparatuta. Bestalde, Chicagon neguak oso gogorak dira, eta juergarako gogo apurrak uxatu egiten dira kanpoan 20 zero azpitik dagoenean.

- Jarraitzen dituzu hemengo berriak? Zerez baliatzen zara?

Bai, internetez baliatzen naiz iturri gisa. Bestalde, saiatzen naiz asteburuero Eibar eta Athletic-en futbol partiduak ikusten.

- Xakea praktikatzen jarraitzen duzu? Non eta zeinekin?

Saiatzen naiz, baina ez daukat lehen adina denborarik. Northwestern-en xake-talde bat dago, ikasleez osatuta, eta eurekin jarduten dut. Eta, internet bidez, nazioarteko txapelketak jarraitzen ditut tarteka.


etakitto.eus

Badakizu www.etakitto.eus webgunean **asteburuko kirol agenda** eta **kirol-emaitzak** ikus ditzakezula?

Ikasenpresa: enpresak sortzen ikasten

Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko ikastetxe-etan Lanbide Heziketa ikasten diharduten mila ikasle inguru batu ziren martitzenean Untzagan, bosgarrenez egin zen **Ikasenpresa Azokan**. Goizean hasi eta bazkaltzeko ordura arte ikasleek sortutako 165 enpresa txikik euren produktuak eta zerbitzuak ezagutzera emateko aprobeztatu zuten azoka eta askok salgai ere ipini zituzten.

Birziklatutako produktuak, informatika programen diseinurako zerbitzuak, elikadura, egurrez sortutakoak, mekanizatu arlokoak, ipuin kontakizunak, menpekotasunen bat dutenen zaintzari lotutakoak, kirol entrenamenduan erabiltzekoak, aholkularitza pertsonala, bitxigintza eta abarrek osatu zuten Eibarrera ekarritako eskaintza.



Uni Eibar-Ermua ikastetxeko talde honek "Ameris" ikasenpresa aurkeztu zuen martitzeneko azokan.

10 urtetik gora daramatzate programa honetan beharrean, Lanbide Heziketa aukeratzaren duten gazteen artean ekintzailetasuna sustatzeko asmoarekin, aurreko astean azoka aurkeztera etorri ziren Pili Diez-ek, Tknikaren Ikasenpresa programaren dinamizatzaileak eta Iñaki Mujikak, Tknikako Zuzendari Exekutiboak. Euren berbetan, "Euskadin arlo horretan eskaintza zabala dago, Lanbide Heziketa aukeratzu gero 23 sektore ezberdini lotutako ikasketak egin daitezke".

Datuak ere egitasmoak duen arrakasta agerian lagatzen dute: "2015-16 ikasurtean EAE-ko 53 ikastetxek eta 132 ira-

kaslek dihardute parte hartzen, 418 ikasenpresa sortu dituzten 3.000 ikaslerekin batera". Eibarren bertan Lanbide Heziketaren barruko Goi Mailako zein Erdi Mailako zikloak ikasteko aukera zabala dago programan parte hartzen duten Armeria Eskolan eta Uni Eibar-Ermuan eta, horiekin batera, Eibarko udalaren ar-



Arozgintzan beharrean jarduteko prestakuntza jaso daiteke Eibarren.

durapean dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketako zentruan gazteak arozgintzan eta sukaldaritzan trebatzen dituzte.

Azokaren harira, bestalde, orain jubilatuta dagoen Javier Unamunori omenaldia egin zioten. Urteetan Armeria Eskolako irakasle izandakoak gaur egun euren enpresaren jabe diren askori



Oinarrizko LH zentruan ostalaritzan jarduteko ikasten ari dira.

aurrera egiten lagundu zien eta, horrekin batera, Urrats Bat egitasmoaren arduraduna ere izan zen. Gazte ekintzaileei urteetan eskaini dien laguntza hori eskertzeko, Miguel de los Toyos alkatearen eskutik "Grabadore bola" oroigarria hartu zuen azokaren inaugurazio ekitaldian.

2000. urtean abiatu zen Urrats Bat egitasmoa eta horren barruan sortu zituzten lehen ekimenak 2004. urterako martxan zeuden: "Harrezkero egitasmoari esker 526 enpresatik gora sortu dira eta horietako gehienak oraindik ere zabalik eta martxa betean jarraitzen dute".


Azoka TKNKA-k (Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kultura Sailaren menpe dagoen Lanbide Heziketarako Ikerketa eta Berrikuntza aplikaturako zentruak) antolatzen du, urtean behin, ikasleek ikasurtean zehar sortutako enpresa proiektuak ("Ikasenpresak") kalera atera eta jendeari erakusteko aukera emateko. Aurretik beste toki batzuetan ipini izan dute azoka, baina azken bost urteetan, udalaren eta LH Oinarrizko Zentruaren laguntza eta elkarkidetzari esker, Eibarren izan da.

SARIA Unamunorentzat

Urteetan Armeria Eskolako irakasle izandakoak "Grabadore Bola" oroigarria hartu zuen Miguel de los Toyos alkatearen eskutik azokaren inaugurazio ekitaldian. Javier Unamunok gaur egun enpresari diren askori lagundu izan die aurrera egiten eta Urrats Bat egitasmoaren arduraduna ere izan da bera.



ESKU BELTZA, 1883ko Eibar hartan



XIX. mendeko 80. hamarkadako hasieran Andaluzian izandako uzta txarrak gosete handiak ekarri zituzten eta horrek langileen errebindikazioekin gogorren jokatzeko zuten lur-jabeen sailak erretzea ekarri zuen ondorio gisa. Apurka-apurka, bi jarrera joan ziren egonkortzen Espainian: alde batetik, Andaluziako anarkokomunismoa; eta, bestetik, Kataluniako internazionalisten anarkokolektibismoa. Andaluziarren jarrera erradikalak hango lur-jabeen berehalako erantzuna jaso zuen. Eta, horrela, Jerezeko Guardia Zibilaren Oliver tenienteak esan zuenez, aberatsekin modu biolentean akabatzeko asmoa zuen erakunde klandestino misterioitsu baten estatutuak aurkitu zituen harraren baten azpian.

FTRE-ko ((Federación de Trabajadores de la Región Española) hainbat kide atxilotu zituzten eta Andaluziako Kropotkinen aldekoen aurkako errepresioa justifikatzeko propaganda kanpaina handi bati ekin zioten. El Blanco de Benaocaz-en izandako hilketen eta benta bateko jabea hil zutela aitzakia hartuta, heriotz zigorrera kondenatutako zazpi lagunek euren bizia galdu zuten eta zortzigarren batek bere bizia salbatu zuen aurretik burua galdu zuelako. Horrez gain, gatibu hartutako ehunka preso Filipinetara bidali zituzten eta, 1903an prozesua berrikusteko prentsa-kanpaina zabaldu zen arte, ez zuten euren askatasuna berreskuratu. Lehen aipatutako frogatik Oliver tenienteak 1883ko otsailean aurkitu zituen eta orduan pasatu zizkieten horren inguruko txostenak Sagasta gobernu liberalaren buruari.

Eibarko Artxibategian dagoen kartak Andaluziako estatutuak aurkitu eta hilabete bat geroagoko data du eta, ortografia akatsak erakusten dutenez, egileen kultur-maila ez da oso urrutira joateko modukoa. Testuan 30.000 erreale eskatzen zaizkio Josefa Baskarani, urrean edo zilarrean, eta Azitaingo ermitan laga beharko dituela agintzen zaio. Kontuan euki behar dugu sasoi hartan ermita hori hirigunetik oso urruti zegoela eta horrek asko laguntzen zuela eskatzen zena diskrezioz egiteko. Biktimari ohartzen zaio inguruan zortzi lagun izango direla tokira heltzen laguntzeko eta, behin ermitara helduta, armatutako beste hamabi lagun izango direla operazioa arazo barik egiteko laguntzen.

Egileak, edukazio handiz, honako erregua egiten dio biktimari: *“Se sirva cumplir la sentensia callandita y con toda franquesa”*. Horretarako, *“venga la negra”* kontraseña botako dionari dirua emateko eskatzen zaio. Gero azkar batean joan beharko du lekutik, bere bizitzak arriskua izan dezakeelako sektako baten batek ezagutu dutela pentsatzen badu. Kontuan izan behar da tamaina horretako operazio diskretu baterako erakundeak kideren presentzia aurreikusten duela.

Izkribuan ziurtatzen dutenez, hasieran 100.000 erreale eskatzeko asmoa zuten, baina egileak eta beste batzuk kopuru hori jaistearen lortu zuten. Erakunde serioa dela berresten dute behin eta berriz, nazioarteko egiturarekin, eta munduko edozein tokitan ezkutatu ere

1883ko martxoaren 14ko dokumentu interesgarria dago **EIBARKO UDAL ARTXIBATEGIAN**, "Pliego de amenazas de la Mano Negra" izeneko agiria. Kartak luzea da, La Mano Negra erakundeko kideek Josefa Baskaran alargunari bidalitako mehatxu-karta, alargunak bere bizia, bere seme-alabena, eta zituen ondasun guztiak salbatu nahi bazituen, 30.000 erreale ordaindu behar zituela esaten egindakoa. Historiagile batzuk zalantzan jartzen dute Andaluzia aldean jardun zuen isilpeko erakunde anarkista hori existitu zenik; beti lotu zaio langileen eta nekazarien mugimenduari, eta, itxura denez, sustraiak -izatekotan Italiako Camorran eta Mafian zituen. Mano Negra izena bera ere lur-jabe handien sektore batzuk nekazari elkarte iraultzaileei ematen zieten izena izaten omen zen.



aurkitu dutela esaten diote biktimari. Baina dokumentua legeztatze-ko zigilurik ez du agiriak. Hori bai, berme guztiak agertzen dizkiote esateko, behin ordainduta, etorkizunean berriro ez dutela berarengana joko eta, horretarako, erakundeak *“un resibo”* egingo diola *“de algún granuja de esta sociedad”* izan daitekeen abusorik ekiditeko. Hitzordua handik bederatzita egunera ezartzen dute eta, bitxia bada ere, karta presidenteak eta idazkariak sinatzen dute. Jatorrizko izkribuan izenak zirriborrotuta daude, baina idazkariaren tokian *“Arcabuses Suinaga”* irakurri daiteke, izenorde indartsua berez, eta presidentearen tokiko sinadurak arazo gehiago ematen ditu, nahiz eta *“Munguía”* abizena irakurri daitekeen.

Badirudi hartzailea sasoi hartako alargun aberats bat zela. Jakina, ez da kargu publikoa (emakumeek ezin zuten izan orduan) eta, testuan agertzen den moduan, inguruko lehenengo biktima da; horrek behartzen du bere parte bat betetzera, eredu izateko. Ez badu horrela egiten, bera eta Bergaran ikasten zuten bere seme-alabak akabatu-ko dituzte. Une hartan eta hurrengo urteetan sasoi hartako “jauntxo-erakunde” seme-alabek Bergarako kolegio baten ikasten zuten.

Esku Beltza edo “La Mano Negra”-k bidalitako agiri bitxi hori moduko frogatik fidagarri gutxi dago; hortik bere garrantzia. Eibarko lehen eta azkena da, lehen aipatu moduan elkarrekin ez zuten-eta luze iraun. Seguruenik Baskaran andereak Udalarik salatuko zion hura jaso izana eta horrek bideratuko zuten dokumentua udal artxibategian egoitea. Ez da uste ordainduko zuenik. Historiagileek ez dute Eibartik oso

urrutira jotzen zeinek idatziko zuten asmatzeko: 1883 hartan Eibarren jende gutxi bizi zen, denak ezagunak, eta une hartako nahaste-borrastea aprobetxatuz, izango zela eibartar azkar bat alarguna ezagutu eta diru erraza lortzeko aukera ikusiko zuena.



Azaroaren 26an zabaldu zituen atek Biharrían, lau enpresa gazteren elkargune den Ubitxako eraikinak. Gazte hauek lan espazioa partekatzeaz gain, sorkuntza eta kultura zentro ere bilakatu dute eraikina. Hilabete bakoitzeko gai bat jorratuz, ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak eta beste hainbat jarduera eskainiko dituzte.

“Proiektua elkarlanaz potolotzen joatea da gure helburua”

Kanpotik, eraikuntza zahar; eta barrutik, enpresa gazte- en elkargune da Biharrían. Berreibar prozesua oinarri hartuta eta proiektua 2015eko martxoan definitu bazen ere, zortzi hilabeteko obra egin ondoren ireki zuten Biharrían.

Zubi (Aholkularitza Zerbitzua), Anemona Studioa (Diseinu Grafikoa), GAC (Arkitektura Bulegoa) eta Hirikiten (Hiriaren Ikerketarako Elkar- te) elkarrekin kideak dira proiektu honen sortzaileak eta

eraikin industrialetan, “zentzuzko” prezio baten truke lan egiteko espazio bat lortu daitekeela frogatzeko asmoz sortu zuten Biharrían.

Enpresari gazteak izateaz gain, interesak ere badituzte komunean eta diziplinen arteko elkarlanak sortzen dituen onuraz baliatuz, Eibarren dagoen aktibitate sare produktiboa indartzeko eta bermatzeko asmoa erakutsi dute. Sare hori indartzeko, eta espazioak izaera aktiboa izan dezan, akti-



Biharrían proiektuaren inguruan bildutakoek astero hartzen dituzte jardueri buruzko erabakiak.

bitate ekonomikoa nahiz ludikoa une jakin batean sortu nahi dutenen parte hartzea nahi dute. Horrela beraz, talde zein norbanakoei hainbat espazio eta baliabideren alokairua eskaintzen diete.

Eibar kulturari dagokionez, bizirik dagoela uste dute proiektuko kideek. Baina euren proposamena herriko gainerako eskaintzen gehigarri bezala planteatzen dute, era guztietako publikoek gustoko duten eskaintza kulturala izan dezaten.

Biharrían-en jarduna

Espazioa asanbleen bitartez kudeatzen dute aipatutako enpresetako zazpi kideek. Astero, tokiari eta jardueri buruzko erabakiak hartzen dituzte eta iristen zaizkien proposamenei nola erantzun adosten dute.

Urtarrila moda diseinuari eskaini diote Biharrían-en eta gaiaren inguruko hainbat ekintza antolatu dituzte. Otsailean, diseinu grafiko eta industria- laren inguruan jardungo dute eta martxoan bestalde, arkitektura hartuko dute. Hilabete bakoitzeko gai nagusi bat lan- tzen duten arren, ez dira ekintza guztiak gai horren inguru-

koak izango. Honen adibide da hilaren 13an antolatu duten papiroflexia-tailerra, 8 urtetik gorako pertsonak elkarrekin jardun dezaten. Hala ere, orain arteko dinamiken egiteko moduak euren nahien eta behar- ren arabera moldatzen joan- go direla adierazi dute: *“Orain- goan horrela planteatu ditugu ekintzak baina horrek ez du gure ibilbidea baldintzatuko”*.

Ekintzei dagokienez, mota desberdinetako ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak, lehiaketa- tak, film proiektioak edo bertso saioak antolatuko dituzte besteak beste, publiko desberdina erakartzeko asmoz: *“adin desberdinetako pertso- nak konektatzea gustatzen zaigu, belaunaldi arteko eza- guera-transmisioaren defen- datzaile sutsuak gara”*.

Publikoarengandik jaso du- ten erantzuna *“primerakoa”* izan dela eta ahal den neurrian horrela jarraitu nahi du- tela diote espazio berri honen sortzaileek. Jendea ekartzea, hauen parte hartzea edota ideia berriak proposatzea gar- rantzi handikotzat jotzen du- te, izan ere, proiektua *“elkar- lanaz potolotzen joatea”* da etorkizunerako finkatu duten helburua.

Diseñamos Biharrían Diseinatzen dugu

OTSAILA / FEBRERO

13 PAPIROFLEXIA TAILERRA

Rafa Rodrigo // 11:00 - 13:00 // 8 urtetik gorakoentzat. A partir de 8 años.

20 LA FAMILIA PLÓMEZ

TALLER TIPOS DE MADERA // TIPOS DE MADERA TAILERRA

25 “Diseinu Grafiko eta Industrialia Eibarren”

ANA OROZKO Artista Eibartarrak egindako Residentzia Artisikoaren reproduzioa eta Publikazioaren aurkezpena. // 18:30 Armagintzaren Museoa

26 Biharrían Aulkiaren Diseinu Lehiaketa

Sari Banaketa eta Erakusketa // 19:00

Info + : www.biharrían.com
info@biharrían.com

Ubitxa 16 -18
 20600 EIBAR

943 01 42 96

Santa Agedan eta sanblas usaiñarekin

Aratostiak beste urte batzuetan baiño lehen ekarri deskuz aurten kalendarixuak. Gaiñera, jaixa otsaillaren lehen egunetara aurreratziarekin batera, koko-jantzixak armarixo eta ganbaratik etaratzeko sasoia San Blas eta Santa Ageda jaixekin batera etorri jaku. Atzo Eguen Zurixa ez eze Santa Ageda bezperia be izan zan eta, horregaittik, Aratostien harira umientzat antolatutako jarduerak santaeskian urtendako abesbatzekin bat egin eben denporan, baiña gauza bixak arazo barik ospatu genduazen, Eibarren parrandarako gogorik ez jakula sekula falta berriro be agerixan lagata.

Aurreko zapatuan aillegau jakuzen gure Aratostiak, Kezka dantza taldekuen eskutik egin ziran koko-eske eta koko-dantzekin. Koko-marruak, urteroko martxan, Merkatu Plazan egin eben lehen agerraldixa, goizian goiz. Plazara saltzera juandako basarritarrak ez eze, erosketak egitteko asmuarekin ohetik goiz altzau ziranak be gustora hartu eben bisitia eta bat baiño gehixago koko-marruekin dantza egitten be ausartu zan, koko-jantzi jaixa iragartzen eban musika alaixarekin animauta.

2008xan abiatu zittuen koko-dantzak eta koko-eskia Kezka taldekuak. Eibarren basarri asko dagoz eta, egun bakarrian danetara aillegatzia eziñezkua zala ikusitta, basarrixak lau taldetan banatu eta urte bakotxerako ibilbidia osatu eben. Hortaz, lau urterik behin emoten detse bueltia Eibar ko basarri-azueri. Aurten hirugarren bueltia hasi dabe ekimena abiatu eben punto



Aurreko zapatuko koko-jantzixen egun osoko jarduna etorri zan Aratostiak iragartzera.
Leire Iturbe

berian, Arrate Balle eta Gorosta auzuetako basarrixetara egindako bisitarekin.

Baiña basarrixak lau multzotan banautata be, urte bakotxian bisitau bihar izaten dittuenak ez dira gitxi izaten. Horregaittik, koko-dantzari eta koko-marruak osatutako konparsa talde bittan banatzen dittue, koko-eskian bete biharreko ibilbidia pixka bat



Dee Versions eta The Vartools taldiek rock kontzertua eskinduko dabe bixar 23:00etan Untzagako karpan.

arintziarren: taldietako bat Gorostatik hasi zan eta bestia, barriz, Arrate-balletik. Bigarren auzo horretan Gaztelu, Arizmendiguena, Arizmendi, San Juangua, Zelaikoa, Untzeta, Agiñao-azpi, Agiñao-gain, Gue-netxe, Narru, Erdikoa, Aretxitagoikoa, Barrundi, Iñarra, Mendigoiti, Lezeta, Asolaberri, Sumendixa-goikoa eta Sumendixa-

behekoa basarrixetara juan ziran. Eta Gorosta aldera juandakuak, barriz, Mugitza, Pagola-txabola, Gorostabeletxe, Gorostabeña, Gorostazpikoa, Kantabria, Mugitza-barri, Itsaso, Maapilla, Zezeil, Biriñao, Ezkaregi-errota, Lezeta-abeltxe, Altzubarren eta Lazareto basarrixetan ibilli ziran koko-eskian. Baiña ez pentsau dantza kontuak hor amaittu zittuenik, basarrixetako bisitak amaittu eta jarraixan, arratsaldian hasi eta afaltzeko ordua aillegau zan arte illuntzian kalia jaixarekin segidu eben eta, Mauxitxa txaranguak lagunduta herriko erdialdian egindako kalejirarekin.

Eguen Zurixa Santa Ageda bezperan

Atzo Eguen Zurixa eta Santa Ageda bezperia, jai bixak egun bakarrian alkartu ja-



kuzen, baiña horrek ez zetsan traba haundirik egin jendiari, eibartarrak betiko martxan bixak ospatzeko tartia hartu eben eta. Eguen Zurixa umiendako Aratostietako egunak haundiña izaten da gurian eta atzo be hala izan zan: bazkalostian hasi zittuen ikastetxietako jaialdi eta kalejirak, batzuk herriko erdialdian eta beste batzuk eskola inguruan eta arratsaldian, barriz, Jainaga eta Narbaizarekin Urkizutik Untzagaraiño kalejira, Lisker taldiak girotutako dantzaldixa eta Astixaren eskutik hainbat taillar egin zittuen.

Oindiok koko-jantzi barik daguazanak, baiña, ez dake zertan larrittu. Izan be, gaurtik hasitta eta martitzena ailegau bitartian, ez gara eta koko-jantzeko atzakixa faltarik izango. Aratoste Barixakurako programiari illuntzian ekingo detse, 20:00etan Urkizutik abiatuko dan Kaldereruen kalejirarekin. Urteroko martxan, gaurkuan be Kezka Dantza Taldekuak, Txolarte eta La-

gun Taldea alkartieta-kuak, Ustekabe fanfarreko musikuak, Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako trikitilarixak, Untzagako jubilau etxe-ko abesbatzak, Kaleetan Kantuz-ekuak eta Jainagaren trikitixa eskola-kuak hartuko dabe parte, Untzagarako bidian euren dantza eta kantuekin herrixa animatzen eta jairako girotzen juateko. Kaldereruen kalejira 20:30xak aldera ailegauko da Untzagara eta, han be dantzan eta kantuan ibilli eta gero, Aratostietako pregoia irakorriko dabe jarraixan Ipuria Gimnasia Erritmikuak. Horren ostian etenaldi laburra egingo da afaltzeko eta, afalostia girotzeko, gabeko 23:00etatik aurrera The Vartools eta Dee Versions taldiak zuzenian jardungo dabe, Untzagako karpan rock kontzertua eskintzen.



Kaldereruek euren zartagin eta lapikuez lagunduta urtengo dabe bixar.

tuko dittue goizeko jarduerak. Baiña jaixak arratsaldian segiduko dau: 17:00xetan As Burgas Galiziako Etxekuak koko-jantzi lehiaketia egingo dabe, Urkizuko euren lokalian. Parte hartzera animatzen diran guztieri opari bana emongo detse eta, horrez gain, hiru koko-jantzi originalenak presentatzen dittuenak sari berezixa jasoko dabe.

Arratsaldeko 18:00etatik 21:00xetara Ustekabe fanfarrekuak kalejiran ibilliko dira eta bigarren kalejira bat be antolatu dabe, Brass Band taldiarekin (19:00xetatik 21:00xetara, Untzagatik abiatuta). Untzagako karpan, barriz, umiendako berbenia eskinduko dabe Alaike taldekuak (18:30xetatik 20:30era).

Aratoste Domekia gaurko eta bixarko egunak baiño pixka bat lasaixagua izango da: 11:00etan Usar-



Famelixako danak mozorrotzeko aukeria egongo da.

Kontzertuak, kalejirak eta lehiaketak

Aratoste Zapatuan, barriz, azken urtiotan egindakuaren bidetik aurten be eguardixan hasiko dira Untzagako karpabarruko jarduerak, 12:00xetatik aurrera San Kristobalگو Jai Batzordiak girotuko daben ardau-dastaketiarekin. Horrekin batera, 12:30xetan Rockalean kalejiria abiatuko da Untzagatik, 14:00xak arte kaliak musikarekin alaitzeko. 13:30ean, barriz, Aratostietako taberna eta kartel lehiaketetako irabazlieri sarixak banatuko detsez eta ekitaldixarekin batera agur-

tza Txistulari Taldekuak Aratostietako kalejira egingo dabe eta arratsaldian, 17:00etan hasiko da ...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik urtero antolatzen dan umiendako playback lehiaketia, Untzagan. Eta talde irabazliak aukeratu eta sarixak banatzen dittuenian, jarraixan "A ze nola-ko banda" parranda ikuskizuna hasiko da.

Eta Aratostieri datorren urtera arte agur esan baiño lehen, martitzen arratsalderako umiendako jarduerak preparau dittue: 17:00etatik 18:30era Untzagan umiendako jolasak egingo dira, Astixaren eskutik. Hórretxek amaitsu eta segidan "Sardiñaren entieru txikixa" egingo dabe, trikitilarixak lagunduta eta, amaitezko, DJ Arnorekin umiendako diskotekia hartuko dau Untzagako karpak.



Play-back lehiaketia domekan izango da, 17:00etan hasitta.



Juan Antonio Ojanguren

“Profesionaltasuna eta humanismoa dira familia-medikuaren lanaren gakoak”

Azken egunotan komunikabide askotan ikusi dugu Juan Antonio Ojanguren Ulacia eibartarra. Izan ere, Donostiako Udalbatzak Hiritar Merezimenduaren urrezko domina eman zion urtarrilaren 19an, San Sebastian bezperan antolatutako ekitaldian. Ojangurennek 20 urte eman ditu Donostiako alde zaharreko anbulatorioan mediku bezala biharrean, eta abenduan jubilatuzen. Auzokoek estimu handia diote eta, herri ekimenez erabakitzen den sari honen bitartez, urte guzti hauetan eskainitako gizatasuna, bokazioa eta dedikazioa eskertu nahi izan diote.

- Aspaldi Donostian bizi zara baina Eibarren jaio zinen. Noiz joan zinen Eibartik kanpora eta nolako harremana daukazu Eibarrekin?

Toribio Etxebarria kalean jaio nintzen, baina aitaren lan kontuak zirela-eta, umea nintzela Zaragozara joan ginen bizitzera. Han egon nintzen mendikuntza-ikasketak amaitu arte. Nire aita (Juan Antonio) eibartarra zen, Indalezio Ojanguren argazkilaria eta mendigoizale ospetsuaren iloba, eta nire ama, Jesusa, Debako Lasao baserrikoa. Etxean betidanik bultzatu dira gure euskaldun erroak. Amaren etxean txikitatik ezagutzen dudak Arrateko amabirjinaren talla dago oraindik. Beti mantendu dugu harremana Euskal Herriarekin eta gure familiarekin. Horrengatik, Donostiako Gipuzkoa Ospitala aukeratu nuen bane-medikuntza espezialitate egiteko. Eibarren senideak ditut –aitaren zein amaren aldetik–, eta guztiarekin harreman beroa daukat. Nire aita Eibarren lurperatuta dago, bere gurasoekin batera.

- Barne-medikuntza espezialitatea egin on-

doren familia-mediku bezala jardun duzu. Zerk bultzatu zintuen arlo horretara?

Medikuntza ikasi aurretik egin nituen Filosofia hiru ikasturteetan gizakiei eta gauzen izaerari buruzko ikuspegi humanitarioa jaso nuen. Medikuntza amaitzean, barne-medikuntza espezialitatea aukeratu nuen, ikuspuntu humanitarioa ikuspegi zientifiko eta integralarekin osatzeko aukera ematen zidalako. Familia-medikuntzan jardun dut komunitatearekin eta gaixoekin harremana handiagoa delako. Komunitateari zuzendutako medikuntzaren bidez giza-karen konpromisoa bultzatzen da eta bizitzaren zentzuaren bilaketan lagungarri da.

- Donostiako Udalak, herritarren ekimenez, Hiritar Merezimenduaren urrezko domina eman dizu. Nola bizi izan duzu? Zer nolako gogoeta egiten duzu?

Espero ez nuen sorpresa izan da, oso atsegina, jendearen estimuaren seinale delako. “*Mobida mediatikoa*” beste gauza bat da, ez dut modu berean baloratzen eta ahal dudana mo-

JOSE IDIGORAS KORTABERRIA



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

Haren aldeko IRTEERA MEZA ospatuko da hilaren 14an (domekan), 12.00etan hasita, San Andres parrokian



duan daramat. Nire ustez erreconomizmendu publikoak giza-talde solidarioentzat izan behar-ko lirateke. Sariaren indibidualizazioari dagokionez, ulertzen dut Alde Zaharreko paziente eta lagunek euren medikuarengan pertsonalizatu nahi izatea, baina horren azpian beste irakurketa bat dago: egunero jendearen osasunaren alde lan egiten duten familia-medikuenganako estimu handia eta goraipamena, hain zuen.

- Abendura arte Alde Zaharreko anbulategian egon zara lanean. Nolakoak izan dira zure pazienteekin izan dituzun harremanak?

Barne-medikuntzako MIReko 4 urteak Donostia Ospitalean egin ondoren, Oiartzunen egon nintzen, bertako osasun zentruan, nagusien egoitzan eta herriko elkarteekin osasun gaietan kolaboratzen. Ondoren, Donostiako Alde Zaharreko anbulategira joan nintzen eta han 20 urte eman ditut. Oso atsegina izan da leku bietako herritarrekin izan dudana harremana; oso ondo hartu naute eta nire mediku lana ahalik eta hobekien egin dut, komunitatean erabat inplikatu. Alde Zaharrean paziente nagusi asko izan ditut eta harremana kofidantzazkoa eta afektuzkoa izan da. Nire lana errespetuan oinarritua egon da, bizi-kalitate duina izateko jarraitu beharreko pausetan akordioak lortuz.

- Zer espero dute gaixoez medikuaren kontsultara joaten direnean?

Gaixoak harreta pertsonalizatuaren bila joaten dira, komunikazio aproposa nahi dute eta euren mina konpartitzeko eta laguntza lortzeko itxaropena izaten dute. Medikuntza aldetik komunikazioa egokia izateko, beharrezkoa da entzuten jakitea (entzute aktiboa), enpatia (sufritzen ari denaren lekuan jartzea) eta onarpenera (ez epaitzea). Hurbileko harreman honen bitartez, bere minari zintzotasunez aurre egiten laguntzen zaio gaixoari, eta erabaki medikuak hartzeko oinarrian gaixoaren protagonismoari zor zaion errespetoa dago.

- Zer nolako balioak izan behar ditu sendagileak? Zer esan nahi da medikuntzaren humanizazioaz hitzegiten denean?

Medikuntza erabat teknikoan oinarritutako erabakien kontra, eta eskubide eta betebeharreran oinarritutako medikuntzaren aurrean, Bioetika klinikoa dago, medikuntza ulertzeko

“Familia-medikuek gure lana diskrezioarekin eta ahalik eta hobekien egiten dugu”

eta egiteko modu berria. Eredu hau baloreetan oinarritzen da: gaixoaren borondatearekiko errespetoa, bizitza-kalitateari atentzioa, tratatzeko modua, jasangarritasun ekonomikoa... Jarrerara honekin, profesionaltasuna eta humanismoa mediku-familiaren lanaren klabeak dira.

- Zer funtzio batetzen dituzue familia-sendagileek?

Familia-medikua beste funtzio batzuk betetzen dituzten profesionalekin koordinatuta egiten dugu lan, kalitate teknikoa eta kalitate humanoa uztartzeko helburuarekin; pertsonekin eta gizartearekin konpromiso profesional zein etikoa daukagu.

Lehen mailako atentzioaren helburua prebentzioa, errekupeazio eta errehabilitazio-zerbitzua



J.A. Ojanguren Eibarren jaio zen, T. Etxebarria kalean, eta umetan Zaragozara joan zen bere familiarekin.

tzua eskaintzea da: ama-umeen zaintza, familia-plangintza, txertaketa, gaixotasun endemikoen prebentzioa eta kontrola, gaixotasun eta lesio arrunten zaintza, osasun-heziketa eta oinarritzeko botiken administrazioa. Oinarritzeko zerbitzu hauei giza- eta osasun-adierazle berrien aurrean sortutako estrategiak gehitu behar zaizkie: zahartzearen eta kronizitatearen handiagotzea, menpekotasunaren handitzea, zaintzailearen gaikarga, inmigrazioa eta gaixotasun espezi-fikoak, krisialdi ekonomikoa eta jasangarritasuna, epidemia biriko berriak...

- Zuen lana ondo baloratuta dagoela uste duzue?

Nire ustez Administrazioak eta biztanlegoaren zati batek ez du ulertzen eta ez du baloratzen familia-mediku baten oinarritzeko jardunaren zati handi bat ez dela neurgarria: entzutea, gaixo terminal bati laguntzea, familia edo zaintzaileak hezitzen eta laguntzen denbora inbertitzea, zentruko lankideentzako gai bat lantzen eta ikertzen emandako denbora... Jarduera guztia hauek ezin dira erregistratu, baina kalitatezko lehen mailako atentzioaren oinarrian daude.

- Zer eman dizu familia-medikuntzak?

Maila pertsonalean, barru-barrutik betetzen ninduen profesional mailako proiektu batean jarduteko aukera izan dut, bizitza-proiektu bezala ere asetu nauena. Familia-medikuntzak, ezagutza progresiboa emateaz gain, gizakiaren baloreei eta mugei buruzko erreflexio-ahalmen handiagoa eman dit. Talde mailan, lankide batzuekin izandako komunikazioa eta elkarrekin egindako lanak oso positiboak izan dira. Esperientzia gogorrak eta une itxaropentsuak partekatu ditugu, eta horiei esker adiskidetasun harreman aberasgarriak sortu dira.

- Alde Zaharreko osasun zentroan omenaldi berezia egin zizuten azken egunean, ezta?

Jubilatu aurreko egunetan, familia-medikuek gure lana diskrezioarekin eta ahalik eta hobekien egiten dugula pentsatzen egon nintzen. Gure lana amaitzen dugunean ixil-ixil joaten gara, gure medikuntza-ibilbidea hasi genuenean bezala. Ez nuen espero Alde Zaharreko lagunek eta pazienteek egin zidaten agurra. Oso espontaneo eta hunkigarria izan zen. Esperientzia berria eta bihotzeko esker ona izan zen.



Jose M^a Makazaga Gabilondo (2016-I-29)

Bizitzan bidelagun ditugunek markatzen gaituzte eta, aldamenetik joan arren, euren parte bat gure bihotzetan betirako geratzen da.

ETXEKOEK





Txapel bi Urbatentzat Euskal Herriko distantzia luzeko igeri probetan

Ipuruako kiroldegiko igerilekuan jokaturako Euskal Herriko distantzia luzeko txapelketan parte hartu zuten Urbateko bost ordezkariak maila bikainean jardun zuten eta infantiletan, esaterako, txapela janztera ere iritsi ziren. 2.000 metroko proba horretan, Jon Osak 24 minutu eta 45 segundoko denbora egin

zuen eta Maite Barruetabeñak 25 minutu eta 8 segundokoa. Biak ere garaile izan ziren eta, nesketan, Kattalin Izagirre txapeldunordea izan zen. Maila absolutotan, loar Urkirik bosgarren postua eskuratu zuen hiru kilometroak 38'47"39 denboran egiteko eta Nekane Tejedor 11.ean sailkatu zen (40'41"83).

Xakeko lehen taldea laugarren postuan

Klub Deportiboko maila goreneko taldeak 2'5-1'5 irabazi zion azken jardunaldian Donostiako Gros B taldeari Deporren jokaturako norgehiagokan. Emaizta horrekin, eibartarrak laugarrenak dira sailkapenean, Fomento lidearra, Hondarribia-Marlaxka A eta Iriondoren atzetik. 1. mailako taldeak, bestalde, 0'5-3'5 galdu zuen Arrasate-Arlutz C taldearekin eta, emaitza horrekin, sailkapeneko azken postuetan geratu da, 10.ean. Bihar kanpoan jokatuko dute talde biek: Eibar A-k Donostian Gros C taldearen aurka eta Eibar B-k Zarautzen Zarautz B taldearen kontra.



Errugbiak gozatu zuten Multikiroletako lehen jardunaldian

Aurreko zapatu goizean Multikirolen lehenengo aktibitatea egin zen Unbeko zelaian. Han izan ziren La Salle, San Andres, Aldatze, Urkizu, Iturburu, Amaña eta Soraluze ikastetxeetako 200 bat neska-mutil. He-dapen askorik ez duten beste hainbat kirolekin batera prestatutako proiektu berritzailean, hain garrantzitsuak diren errespetua eta adiskidetasuna moduko balioak lantzen dituzte. Aipaturako lehen egun horretan, jokalariek kontakturik gabeko errugbian jardun zuten eta baita errugbi zinta txapelketa batean parte hartzen ere.

Astelenak pilota partidu bi hartuko ditu gaur

Errendimendu Gipuzkoako Txapelketari dagokiona izango da jaialdiari hasiera emango dion neurketa eta hor, infantiletako 2. mailako konbinaketan, Eibar-ko Klub Deportiboko Abalos eta Sanchez Debako Euskal Jolas-eko ordezkarien aurka lehiatuko dira. Bigarren partidua helduen 2. mailakoa izango da: Narbaiza-Agirresarobe herriko bikoteak (azken jardunaldian 18-22 irabazi zuten Zumaian) Andoaingo Gaztelekuko ordezkariak osatutakoa izango du aurrez-aurre. Jaialdia 19:15etan hasiko da.



Narbaizaren errematea.



Ipuruako gimnastak gorengo postuekin tematuta

Urtea amaitu zuten moduan hasi dute 2016a ere Ipuruako Klubeko gimnastek eta, aurreko asteburuan jokaturako Gipuzkoako Txapelketarako sailkatzeko lehen fasean, senior A taldea bigarrena izan zen, kadete B taldea hirugarrena eta infantil A seigarrena. Horrez gain, Eibarko hiru gimnasta onenak izan ziren euren maila indibidualetan: Irati Yarza senior A mailan, Lorea Armendariz jubencil A-n eta June Martinez kadete A-an. Ez hori bakarrik, klubeko 14 gimnasta maila bakoitzeko hamar onenen artean sailkatu zirelako. Bigarren faseari apirilean ekingo diote. Aurretik, baina, hilaren 20an Bergaran jokatuko den eskolako B mailako lehiaketan izango dira alebin eta infantil mailaletako hogeitasei neskatila.





Radosevic eta Ansotegi prest Eibarrekin debutatzeko

Eta Kike Garcia aurrelaria denboraldi amaieran. Azkenean hiru jokalaririk etorri dira eta beste hiru joan urtarileko fitxaketa etapan: Jota Peleteiro, Radosevic eta Berriatuko Ansotegi etorri diren moduan, irten dute Arruabarrenak, Verdik eta Eddy Silvestrek. Badago laugarren fitxaketa bat: FL Championship ligako Middlesbrough-etik denboraldi amaieran etorriko den Kike Garcia. Jokalari hori 2019ra arte izango da, gainera, Eibarrekin. Bestalde, Premier Bidaiak-ek autobusa betetzea lortu du bihar 16:00-etan jokatu den At. Madril - Eibar partidua ikustera joango diren zaletuekin.

35 mendizale izan ziren Otxandio-Durango osatzen

Aurreko zapatuan Ardo eta arrain bidearen seigarren etapa osatu zuten Klub Deportiboko mendizaleek. 35 lagun izan ziren 12 kilometro t'erdiko ibilbidea egiten, eguraldia lagun zutela. Hurrengo etapari, zazpigarrenari, otsailaren 13an helduko diote, Durangotik Gernikaraino joateko. Ardo eta arrain bidearen zortzigarrena eta azkena martxoaren 12an egingo dute, Gernikan hasi eta Bermion amaitzeko. Argazkian, mendizale batzuk Unzillaitz atzean dutela.



Somos Eibar Eskubaloiak bi puntura du bigarren postua

Maila igotzeko promozioaren bila dabilta Fernando Fernandezek mutilek eta azken asteburuan garaipen erraza eskuratu zuten Egiaren aurrean (38-32). Atsedendira ere bost goleko aldearekin erretiratu ziren (21-16) Ipuruan jokatuako partiduan. Aitor Telletxea (8 golekin), Iker Eizagirre (7) eta Mikel Zuloaga pibota (5) izan

ziren goleatzaile nagusienak. Hurrengo jardunaldian oso atzean dagoen Romoren kantxan jokatu dute eta, irabaziz gero, sailkapenean postua irabazteko aukera izango dute aurretik dituzten Anaitasuna eta Huarte aurrez aurre izango baitira.

Avia Eibar-eko nesken talde nagusia ere garaile izan zen, Andoainean Leizarani 23-

33 irabazita, eta Haritza mutilen bigarren taldea 25-21 gailendu zitzaion Donibaneri eta sailkapeneko onenekin jarraitzen du. Bestalde, IK4-Tekniker mutilen jubenil mailako taldea nagusi izan zen promozio-ko lauren artean jokatuako lehian, modu horretan Euskal Ligako onenekin jarraitzeko Euskadiko txapelaren bila.

Isasi, 31 Egunero 06.00etatik aurrera
943 207 737
 Etorri!
 Zure etxian
 egongo zara!!
 Kafetegia OKINDEGIA
SUTINDO

ITZULPEN
 ERA GUZTIETAKO TESTUAK
 ITZULTZEN DITUGU,
 euskaratik gaztelarrera,
 gaztelerratik euskarara,
 eta ingelesetik euskarara.
ZERBITZUA
 elkarte@etakitto.com

Funeraria Ehorztetxe Mugica

EIBAR Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27	ELGOIBAR Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Bulegoa Eibarko erdialdean Bulegoa Bidebarrieta, 20 24 orduko zerbitzu iraunkorra 943 20 19 51 www.funeuskadi.com	
Euskadiko Lehen Ehortze Taldea GRUPO Funeuskadi	



LUISTXO FERNANDEZ
(Azpitoluak.com)

Saria jaso eta berehala, eskerrak ematen ekin zion hitzalditxoari: "Eskerrik asko Argia, eta eskerrik asko, bereziki, azpitoluak euskaratzen lan boluntarioa egin duzuen lagunei, nirekin etorri den eta 'Toy Story' saga euskaratu duen Joxe Aranzabali eta 'Taxi Driver', 'Cinema Paradis', 'Eratzunen Jauna', 'Edorta Eskuartazi' eta beste hainbat eta hainbat lan euskaraz egotea posible egin duten boluntarioei".

Dioenez, "interes pertsonal batetik" sortu zuen Luistxo Fernandezek Azpitoluak.com webgunea. "Nik filmak azpitoluekin ikusten nituen eta euskaraz horrelakorik ba ote zen otu zitzaidan. Saio pertsonala egin eta seme-alabekin arrakasta izan zuela ikusita, beste batzuek landutakoak hartu eta webgune txiki ba-

"Seme-alabekin arrakasta zuela ikusita ekin nion proiektuari"

Aurreko barixakuan banatu zituzten 27. Argia Sariak, Usurbilgo Atxega jatetxeak hartu zuen ekitaldian, eta Interneteko saria Azpitoluak.com ekimenari eman zioten, proiektua orain dela 8 urte abiatu zenetik 700 film luze euskaratu dituela eta "euskerari egindako ekarpenagatik". Saria proiektuaren sortzaileak, Luistxo Fernandez eibartarrak jaso zuen, bere asmoa aurrera egiten lagun izan duen Joxe Aranzabalekin batera.

tean bildu nituen". Lana, baina, ez du berak bakarrik egin: "Hasieratik nuen elkarbanatzeko ideia, bai azpitoluak deskargatzeko bai kargatzeko garaietan". Erabiltzaileek bietarako azalpenak aurki ditza- ke webgunean bertan.

Amaitu aurretik, "antzeko ahalegin instituzional batzuk ere badirela" gogoratu zuen,


"baina pixka bat motelduta" daudela pentsatzen du. Dioenez, "Filmazpit-en ari dira pelikula argitaratzen baina nik espero nuen aurten hasiko zirela beste asko publikatzen. Orain dela urte eta erdi inguru iragarri zen akordio bat Canal+ eta Eusko Jaurlaritzaren artean eta dozena- ka film euskaratuko zirela azpitoluen bi-



dez esan zen eta gainera ondare publiko izango zirela. Ez dugu izan horren inguruko beste berririk". Iaz erabiltzaileen ekarpenak apur bat murriztu zirela ikusita, aurtengorako erronka xumeagoa da: "Ikusiko dugu, jendea hasi da kargatzen, hiruzpalau ekarpen egon dira lehen hila- bete honetan".

Euskerazko piropo lehiaketa

Udalak eta euskaltegi biek elkarlanean antolatuta, euskarazko piroporik onena aukeratzeko lehiaketa martxan dago. Parte hartu nahi duenak piropo proposamenak otsailaren 21erako aurkeztu behar- ko ditu, zuzenean euskaltegietakoa batean edo libu- rategian edo, bestela, posta elektronikoz bidalita (euskaltegia@eibar.eus / eibar@ae.eus). Lehiaketa- ra aurkeztutakoen artean saria jasotzeko bi hautatu- ko dituzte (epaimahaiak bat aukeratu du eta bes- tea, berriz, jendeak www.eibarko-euskara.com bi- tartez egingo den bozketan, boto gehien jasotzen dituen izango da).



Azkoitiko Banda zuzentzeko gonbidapena

Azkoitiko Udal Bandak Jose Miguel Laskurain eibartarrari euren herrian kontzertua zuzentzeko gonbidapena egin dio. Emanaldia apirilaren 24an izango da eta joko dituzten piezak latindar estilokoak izango dira. Bestalde, Laskurainek Debabarrenerako Orfeoia sortu nahi du eta horretarako lehen pausoak eman ditu. Asmoa abestea gustoko dutenekin taldea osatu eta or- feoia osatzea litzateke. Eta, bien bitartean, abestu, musika egin eta ondo pasatzea. Entseguak hamabostean behin egingo dira, asteburuetan, eta ur- tean zehar pare bat emanaldi eskintzea aurreikusita dago. Abestea atsegin duen Debaba- rreneko edonork eman dezake izena (batez ere gizonezkoen ahotsak behar dituzte). Proiek- tuan parte hartu nahi duenak dborfeoia@gmail.com helbide- ra idatzita informazio gehiago jasotzeko aukera izango du.



Argazki erakusketak eta ikastaroa

Hilabete honetarako erakusketa berri bi prestatu dituzte Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldekoek: Ambigu tabernan Rafael Garcia Hernandez bergarraren "La dama de rojo" izenburukoa dago ikusgai eta Portalea jatetxean, berriz, Jose Luis Irigoienen "Cabo Verde" izenekoak.

Horrekin batera, Photoshop CS6 programarekin trebatu nahi duten argazkilarientzat ikastaroa antolatu dute. Juan Antonio Palaciosok emango ditu klaseak, otsailaren 22tik martxoaren 16ra bitartean, astelehen, eguazten eta eguen arratsaldetan (19:00etatik 21:00etara). Ikastaroaren prezioa 60 eurokoa (bazkideentzat) eta 80 eurokoa (beste guztientzat). Informazio gehiagorako zein izena emateko, palaciosgar@gmail.com helbidera idatzi.



Gaztezuloren Aratoste Lehiaketa

Gaztezulok eta Forumsport-ek Aratosten inguruko mozorro lehiaketa antolatu dute. Parte hartzeko @gaztezulo kontuaren jarraitzailea izatea eskatzen dute eta, horrekin batera, lehiaketara aurkeztu den argazkian @gaztezulo eta @forumsport.es kontuak etiketatzea (#mozorro_lehiaketa etiketa erabiltuta). Argazkiak bidaltzeko azken eguna otsailak 14 izango da eta irabazleak akzio-kamera (osagarri guztiekin) jasoko du. Informazio gehiagorako gaztezuolo.eus/lehiaketak/ begiratu.



Aratosteak gaztelekuan

Asteazken Indianokua gaztelekua Aratosteetarako apaintzen ibili dira begiraleak eta neska-mutilak. Dekoraziorako aukeratu duten gaia "Espazioa" izan da eta, eskulana egiten gototik jardun dute beharrez, gaztelekua extralurtar, kohete, planeta eta bestelakoekin bete eta espazioaren itxura izatea lortzeko.

Eguen Zuri Argazki Lehiaketa

Arrate Kultur Elkarteak Eguen Zuri argazki lehiaketa abiatu du aurten ere. Parte-hartzaileek Aratosteetan egindako argazkiak elkartearen bulegoan entregatu beharko dituzte, martxoaren 9rako. Hiru onentzat sariak banatuko dituzte (160, 100 eta 60 euro).



Lehen sorospenen inguruko hitzaldia

Seme-alabekin gerta daitezkeen larrialdi-egoeretan nola jokatu behar dugun erakutsiko digute Nerea Arostegi eta Erkuden Abascal pediatrek, Carmen Zendoia erizainarekin batera, ...eta kitto!k otsailaren 16rako antolatu duen hitzaldian. Erredurak, kolpeak, itomenak... eta bestelakoak aurrean zer egin azalduko digute hiru adituek, arratsaldeko 19:00etatik aurrera ...eta kitto!-n. Gurasoak Berbetan egitasmoaren barruan antolatu du ...eta kitto!-k hitzaldia, baina edozeinek har dezake parte.



Juanra Madariaga Harixa Emoten

Idazle bizkaitarraren "Espedizioa, mendi ororen pisua" liburua irakurri eta haren inguruko tertulia egin zuten joan zen martitzenean, egitasmoan izena emanda dutenek. Mendia eta literatura Madariagaren zaletasun biak uztartuz, Shisha Pagmara egindako espedizioaren inguruko gorabeherak bildu ditu liburuan. Irakurriko duten hurrengo liburua Aritz Gorrotxategiren "Koldar hutsa zara" izango da, eta tertulia martxoaren 1ean egingo dute.



Mozorro-tailerra guraso berbalagunekin

Aurreko barixakuan, Gurasoak Berbetan egitasmoa Barixakuak Jolasian-en barruan, mozorro-tailerrean jardun zuten guraso berbalagunekin eta horien seme-alabek. Material gutxirekin eta modu errazean mozorro politak egin zituzten umeentzat, aurtengo Aratosteei aurrea hartuz. Hurrengo saioa otsailaren 26an izango dute eta txiste-jolasak egingo dituzte.



ANE URKIOLA

Sukalde kontuak

Senideak gonbidatu dituzu bazkaltzera. Dutzatzen ari zaren bitartean hasi zara pentsatzen zer prestatu. Ez duzu oso argi betiko arrozarekin edo ekialdeko jaki exotikoren batekin seduzituko duzun familia. Izan ere, aizu, heldu zaizu (hain modan dagoen) confort gunetik irteteko sasoa. Jantzi eta auzoko supermerkatuara zoaz, hartu duzu erabakia eta arriskatu egingo zara oraingoan.

Horrelako zer edo zer da film labur bat egitea. Hasieran osagarri guztiak lortzea da helburua: gidoia idatzi, aurrekontua egin eta finantziarioa topatu, ekipoa sortu eta koordinatu, lokalizatu, aktore egokiek topo egin, azpiegitura kudeatu... Aurretiko lana garrantzitsua da, sukaldean moduan, baina benetako lana sua pizten denean hasten da. Denbora eta baliabide mugatu batzuen barruan kontatu behar baituzu istorioa. Zuk eta taldekideek badakizue zer kontatu, baina erronka, ordea, hartzaileengan mezuak klik hori eragitea da. Heldu da momentua, zezenaren aurrean zaude. Sabelean kilimak dituzu eta hankak dardara batean, su txikitari hasi zara. Mimoz zabilta lanean: zure istorioa hasi da egosten eta poliki-poliki pertsonaiak kolorea hartzen. Txirrinak jo du eta badatoz senideak. On egin film labur honekin!

Antzerki Jardunaldiak ate joka

Gaur zortzi 17:00etatik aurrera Untzagan eta Toribio Etxebarria kalean egingo den Giza-irudien XIV. erakustaldiarekin abiatuko dira aurtengo Antzerki Jardunaldiak. Aurreko edizioetan bezala, aurtengo erakustaldian parte-hartuko duten antzezleek ondo baino hobeto menperatzen dituzte gorputz espresioa, mimoa, yoga eta beste diziplina batzuk. Hainbat hiritatik ailegatuko zaizkigu, pertsonaia ikusgarri eta konplexuekin eta, gainera, horietako batzuk Eibarren lehenengoz erakutsiko dituzte. Antzerki Jardunaldien irekiera ekitaldi "ofiziala" pixkat geroago, otailaren 15ean izango da: 19:00etatik aurrera Coliseoan hitzaldia emango du Veronica Forquek, "La alegría del actor" izenburuari jarraituta. Diario Vascoren "Aula de Cultura" delakoaren bitartez egingo den solasaldia Juan Velaquezek koordinatuko du eta aurkelea Juan Ortega izango da.


Bestalde, antzerkirako sarreraren alde aurreko salmentarekin hasita daude, interneten (www.kutxabank.es helbidean) eta Coliseo antzokian (astelehenetan 19:00etatik 20:00etara eta



barixakuetan 21:00etatik 22:00etara). Horrekin batera, emanaldi bakoitzaren amaitsu ondoren, hurrengo lanentzat sarrerak erosteko aukera izango da eta bestela egunean bertan, funtzio bakoitzaren hasi baino ordu erdi lehenago leihatilari salgai ipini-ko dituzte.

Koldo Zuazok

euskalkiak.eus abiatu du



Koldo Zuazok hizkuntzalari eibartarrak urteak eta urteak daramatza euskara eta euskalkiak ikertzen eta orain bere lanaren emaitza interneten, www.euskalkiak.eus sortu berria ikus dezakegu. Atzo aurkeztu zuten webgunea, Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean. Zuazok euskara egoera berrietara moldatzeko beharra ikusi arren, kezkatuta dago euskalkiak galtzen ari direlako eta hori aldatzeko nahiak bultzatu du beste bost lagunekin batera webgunea sortzera.

Euskalkiak, euskara batua, literatura eta tokiko batuak, eta ikus-entzunezkoak bildu dituzte atarian eta proiektuaren egileek azken atal horren garrantzia azpimarratu dute, "besteak beste hiztun ezberdinekin egindako elkarrizketak hor jaso ditugulako". Zuazok dioenez, "gehienbat, ahozko euskararen aldarri bat egin nahi dugu, euskalkiaren egoera nahiko txarra dela ikusten dugulako eta inork ez duelako horren alde ezer egiten. Eta euskalkia galtzean euskara bera galtzen da".



Felipe Uriarte mendizalea Soraluzean
 Soraluzeko Mendi Taldeak antolatutako hitzaldi zikloaren barruan, Felipe Uriarte mendizaleak hitzaldia emango du datorren eguaztenean (otsailaren 10ean), 19:30ean Kiroldegiko antzokian. Uriarte, besteak beste, 1974ko "Tximist" Everesterako lehen euskal espedizioan parte hartu zuen eta datorren asteko saioan mendizaleatasunaren inguruko bere bizipenak azalduko ditu, mendiari lotutako beste kontu batzuekin batera.

The Vartools eta Oso Basatis

Soraluzeko gaztetxeak Aratosteak direla eta, The Vartools eta Oso Basatis taldeekin kontzertua antolatu du zapatu honetarako, 23:00etatik aurrera. Sarrerak 3 euro balio du.



El Drogas eta (Des) memoriaren Banda

Enrique Villarreal "El Drogas" bere (Des)memoriaren Banda Elgetan izango dira otsailaren 27an (zapatuan), Espaloia kafe antzokian 21:30ean hasiko den Memoria Historikoa ardatz duen ikuskizuna eskaintzen. Elgetako udalaren, Intxorta Kultur Elkartearen eta Espaloia kafe antzokiaren eskutik egingo duten emanaldirako sarrerak aldeztu aurretik eros daitezke (14 eurotan) ticketea.com helbidean, Bergarako Pol-Pol tabernan eta Elgetako Espaloian.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

hildakoak

- Jose M^a Makazaga Gabilondo. 65 urte. 2016-I-29.
- Carlos Sarraga Perez. 76 urte. 2016-I-29.
- Julian Lucio Fresnedo. 91 urte. 2016-I-29.
- Ramon Esandi Sola. 93 urte. 2016-I-29.
- Pedro Laskurain Garmendia. 86 urte. 2016-I-30.
- M^a Luisa Maguregi Agirre. 91 urte. 2016-I-30.
- Visi Sanz Saiz. XX. 2016-I-31.
- Javier Ereña Telleria. 82 urte. 2016-II-1.
- Urbano Garcia Garcia. 91 urte. 2016-II-3.

jaiotakoak

- Thalia Valdes Dominguez. 2016-I-24.
- June Elkororiribe Lopez. 2016-I-26.
- Ibai Perez Andrade. 2016-I-31.

farmaziak

- Barixakua 5
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
- Zapatua 6
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
- Domeka 7
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Astelehena 8
EGUNEZ Zulueta (S. Agustin, 5)
- Martitzena 9
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Eguaztena 10
EGUNEZ Castaño (J. Etxeberria, 7)
- Eguena 11
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Barixakua 12
EGUNEZ Elorza (J. Gisasola, 18)

GAUEZ BETI - 2016AN-
Iraundegi (Calbeton, 19)

SUDOKUA

		3		9			
		7	1		8		6
	8		4				9
	3	6					
7							5
					1	8	
	1			4		2	
5			2	6	4		
			5		8		

1	2	8	9	6	7	4	5	3
6	4	5	2	1	3	9	7	8
9	7	3	5	4	8	2	1	6
2	3	9	8	7	1	6	4	5
5	6	7	3	9	4	1	8	2
4	8	1	6	2	5	7	3	9
8	9	4	7	5	6	3	2	1
3	1	6	4	8	2	5	9	7
7	5	2	1	3	9	8	6	4

AURREKOAREN
EMAITZA

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora010
- Udaletxea943 70 84 00
- Portalea943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa943 82 01 10
- KIUB943 20 38 43
- Epaitegia943 03 34 00
- Iberdrola.....901 20 20 20
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Mendaro osp.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekuia943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza943 53 17 00
- Eusko Tren.....902 54 32 10
- Pesa.....902 10 12 10
- Taxiak943 20 30 71
-943 20 13 25
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63

Barixakua 5

KOKO-JANTZI LEHIAKETA

18:00. Umeendako. Izen-ematea: Liburu sailean. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

BILERA IREKIA

19:30. CARE Eibarko Errefuxiatuen aldeko Kontseilua. Portalean.

ARATOSTE BARIXAKUA

20:00. Kaldereroen kalejira, Urkizutik Untzagaraino.

20:30. Kaldereroen abestiak eta dantzak.

21:00. Aratosteetako pregoia.

23:00. Rock kontzertua The Vartools eta Dee Versions taldeekin. Untzagako karpan.

Zapatua 6

ASTELENA HAUR PARKEA

11:00-14:00 & 16:30-20:30. 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro. Astelena frontoian.

ARATOSTE ZAPATUA

12:00. Animazioa, San Kristobalگو Jai Batzordeak girotua. Ardo-dastaketa.

Untzagako karpan.

12:30-14:00. Rockalean kalejira, Untzogatik abiatuta.

13:30. Taberna eta kartel lehiaketetako irabazleei saria banatzea.

17:00. Koko-jantzi lehiaketa, Galiziako Etxean.

18:00-21:00. Kalejira, Ustekabe fanfarrearekin.

18:30-20:30. Umeendako berbena, Alaiki taldearen eskutik. Untzagako karpan.

19:00-21:00. Brass Band taldearen kalejira, Untzogatik abiatuta.

23:00-02:00. Dantzaldia, Alaiki taldearekin.

Untzagako karpan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

Domeka 7

ARATOSTE DOMEKA

11:00. Aratosteetako kalejira, Usartza Txistulari Bandaren eskutik.

17:00. Umeendako Playback Lehiaketa, ...eta kitto!-k antolatuta. Jarraian, "A ze nolako banda parranda" ikuskizuna. Untzagako karpan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. 2-5 urteko haurrak dituzten familiendako. Ipurua kiroldegian.

Astelehena 8

IKASTEN

10:00. "Telefono mugikorraren erabilpenaren hasiera". Untzagako jubilatutuetan (liburutegian).

Martitzena 9

IKASTEN

10:00. "Quebec... munduari bira" hitzaldia, Ernesto Olasagastiren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00. Puntu-tailerra.

17:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

ARATOSTE MARTITZENA

17:00-18:00. Umeendako jolasak Astixaren eskutik.

18:30. Sardinaren "entieru txikia", trikitilariekin. Umeendako diskoteka, DJ Arno-rekin. Untzagako karpan.

HITZALDIA

19:00. "Bizi baratzea" hitzaldia, Jakoba Errekondoren eskutik. ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuarekin).

Eguaztena 10

IKASTEN

09:12. Mendi-ibilaldia (Basauri-Bilbo). Irteera ordua Estaziñoko tren geltokitik (09:14ean Ardantzatik).

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 11

IKASTEN

10:00. "Foruak, euskal antolamendu politikoa Ertaroan" hitzaldia, Lola Valverderen eskutik. Armeria Eskolan.

BILERA IREKIA

19:00. Kaleratzeak Stop Debabarrenarena. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

erakusketak

Otsailaren 7ra arte

"Gurutzatzen diren bizitzak" Xose Lois Carreira eta Iñaki Aranzabalen erakusketa. Portalean.

Otsailaren 29ra arte

"La dama de rojo" Rafael Garcia Hernandezen argazki-erakusketa. El Ambigú-n.

"Cabo Verde" Jose Luis Irigoienaren argazki-erakusketa. Portalea tabernan.

Iñaki Campos-en rock-taldeen argazki-erakusketa. Ez Dok tabernan.

2016ko abendura arte

Jose Luis Apraizen arma-bilduma erakusketa. Armagintzaren Museoa.

ikastaroak/lehiaketak

Otsailaren 13 eta 20an eta martxoaren 5ean

Ibilbide Teknologikoak. "Robotika Lego Wedo" eta "Robotika Lego Mindstorms EV3". Juan San Martin liburutegian.

Otsailaren 21era arte

Euskarazko Piropo Lehiaketa. Lanak: Liburutegian, Udal Euskaltegian eta AEK-n.

Otsailaren 22tik martxoaren 16ra arte (astelehen, eguazten eta eguenean)

Photoshop CS6 argazki ikastaroa. Juan Antonio Palaciosen eskutik. Klub Deportiboan.

Otsailaren 23an, martxoaren 22an, apirilaren 31n eta ekainaren 28an

"Psikosintea, integrazio proposamena". Defibelek antolatuta. Portalean.

Martxoaren 7ra arte

XXII. Ipurterre ipuin eta gutun lehiaketa. LH eta DBHko ikasleentzat. Ikastetxeetan.

Martxoaren 9ra arte

XIX. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa. Gaia: Aratosteak. Arrate Kultur Elkartearen.

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.



Zorionak, UNAITXO, begi urdin, bost urte horrengaitik. Muxu potolo bat famelixa guztiaren partez eta segi holakua izaten.



Zorionak, LARRAITZ, bixar 10 urte beteko ditte-eta etxeko dantzariak. Ondo-ondo pasa eguna, danon partez.



Zorionak, AIMAR Blanco Gantxegi, domekan bi urte beteko dozelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, EKAIN, bixar 9 urte beteko dozu-eta. Muxu haundi bat famelixaren eta, batez be, Hiart zure arrebaren partez.



Zorionak, LIBE, gure printzesak bi urtetxo egingo ditte-eta hillaren 10ian. Muxu bat danon eta, batez be, Aner-en partez.




Zorionak, OIHANA, gaur bi urte egingo dozu-eta. Segi gure bizitzak alaitzen. Muxu zaparrada bat etxekuen partez.



Zorionak, IZAR, aurreko domekan 12 urte egin zenduaz-eta. Beste 12 muxu haundi etxekuen partez.



Zorionak, JULEN, bixar sei urte beteko dozu-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JUNE, gaur zortzi urte egin dozu-eta. Ondo-ondo ospatu eguna, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LIBE Mekdes, gaur urtetxua betetzen dozu-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, anaixen partez.



Zorionak, MIREIA, San Blas egunian 29 urte bete zenduaz-eta. Patxo haundi bat kuadrillakuen partez.




Zorionak, GARI! Gaur zazpi urte egin dozu, mutil haundi! Ondo-ondo pasau! Patxo pillua zeuretako, pitxin!




Zorionak, FRANTZISKO eta MARIA!!!, hillaren 2xan 50 urte bete zenduaz-eta alkarregaz. Urrezko ezteietara helduta, segi holan urte askuan. Muxu haundi bat zuen alabaren partez.



Zorionak, IRAIA (urtarrillaren 12xan lau urte) eta IKER (31n zazpi) urtiak egin dozu-eta. Muxu haundi bat famelixakuen partez.



Zorionak, IKER, domekan bi urte egingo dozu-eta. Muxu haundi bat aitatxo, amatxo eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, XABAT, gaur bi urte betetzen dozu-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ARITZ eta amatxo!! Ondo pasa bixar zuen egunian. Etxekuen partez.

(1 ARETOAN)
6an: 17:00, 19:45, 22:30
7an: 17:00, 20.00
8an: 20:30

"La chica danesa"

Zuzendaria: Tom Hooper



(2 ARETOAN)
6an: 17:00 (Antzokian), 19:45, 22:30
7an: 17:00 (Antzokian), 20.00
8an: 20:30

"Pesadillas"

Zuzendaria: Rob Letterman



(ANTZOKIAN)
6an: 16:30 (2 Aretoan), 19:15, 22:30
7an: 16:30 (2 Antzokian), 20.00
8an: 20:30

"El Renacido"

Zuzendaria: A. Gomez-Iñarritu



zineaColiseoan

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Elgoibarren. 2 logela, egongela, sukalde, kornua eta despentsa, balkoiarekin. Eguzkitsua eta kanpora begira. Egoera onean eta merke. Tel. 685-753453 eta 656-728618.
– Bi etxe salgai Uxanurin (Nafarroa). 160 m²koa sartzeko modukoa (65.000 euro). 120koa barruko distribuzioa egiteke (30.000 euro). Tel. 653-735733.

1.2. Errentan

– Pisu txikia (buhardila antzekoa) hartuko nuke alokairuan Errebal-Urkizu inguruan. Tel. 631-098995.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 632-337083.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 637-363778.
– 3 logelako pisua alokagai Eibarren, Ipurua auzoan. Haurrak dituztenentzako aproposa. Tel. 636-221469.
– Logela alokagai Eibarren. Kalefaktzioarekin. Tel. 697-901000.
– Gela biko pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-408528.
– Pisua alokagai Esteponan (Malaga) portua eta hondartzaren aurrean, igerileku komunitarioarekin. 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldaria eta terraza (itsasoari begira). Hamabostaldietarako (otsailetik ekainera arte). Tel. 645-728317 eta 943-201294.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garajea itxia salgai Matsarian. 21.000 euro. Tel. 661-377537.

3.2. Errentan

– Garaje bikoitza alokatzen dut Egigurentarren plaza azpian. Tel. 666-444074.
– 33 m²ko lokala alokatzen dut, hainbat aktibaterako aproposa (bulegoa, klase partikularrak...). Tel. 674-277661. Cristina.
– Bi gela alokagai Arrasaten (bat jantzita). Estetika, masajeak, psikologoa, tatuatzailea... hainbat aukeratarako proposak. Leku paregabearen. Prezio onean. Tel. 603-723219. Aitor.
– Garajea hartuko nuke alokairuan Errebal inguruan. Tel. 622-107353.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako egin eta dendaria jarduteko. Esperientzia. Tel. 639-423493.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Edozein ordutegian. Tel. 628-738472 eta 632-143239.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 608-376387.
– Emakumea eskaintzen da umeak zaindu, etxeko lanak egin etabarretarako. Tel. 688-710595.

– Gizona eskaintzen da kamioilari moduan. CAP baimena eta C mailako kametarekin. Tel. 603-066671.
– Emakumea eskaintzen da era guztiarako garbiketara lanak egiteko. Tel. 628-223441.
– Emakumea eskaintzen da arratsaldez hiru ordutan lan egiteko. Tel. 631-098995.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 652-683273.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako. Erreferentziak. Tel. 652-567969.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-709164.
– Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 652-587259.
– Pieza eta artikulu zaharrak konpontzen dira. Tel. 609-918803.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta tabernan laguntzeko. Tel. 632-384325.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 602-051309.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-883878.
– Neska eskaintzen da sukalde-laguntzaile jardun, garbiketarako egin eta nagusiak zaintzeko. Tel. 628-738472.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 658-273486.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibarren edo inguruan. Tel. 639-020081.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketara lanak egin etabar. Erreferentziak. Tel. 616-328060.
– Ilea-paintzailea eskaintzen da Eibarko ilea-paindegi batean lan egiteko. 15 urteko esperientzia. Tel. 650-988799. Marian.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 628-318570.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita ospitalean ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-918394.
– Mutilla eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketarako egiteko. Tel. 640-209948.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 662-430951.
– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jardun eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-882838.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaindu eta torno korbentzionalan lan egiteko. Tel. 633-892829.
– Emakumea eskaintzen da goizez nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Erreferentziak. Tel. 616-607121.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 679-801543.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin eta nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Tel. 632-337083.
– Mutilla eskaintzen da sukalde-laguntzaile edo kamarero jardun eta nagusiak zaintzeko. Tel. 653-281376.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko. Erizaintza tituluarekin. Tel. 666-380843.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Egun osoz. Geriatria tituluarekin. Tel. 658-458061.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 658-458271.
– Gizona eskaintzen da gaeuz nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 650-513412.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu, garbiketara lanak egin eta sukaldari moduan. Tel. 634-709827.

4.2. Langile bila

– Spinning irakaslea behar da. Tel. 618-272877.
– Langile euskalduna behar da Eibarko taberna batean. Tel. 639-792203.
– Sukaldaria eta kamarera behar dira. Curriculum-a bidali: camareros12345@gmail.com
– Fresadora CNC-ko mekanizatzailea hartuko luke Elgoibarko enpresa batek. Orduetgia: 09:00-13:00. Tel. 943-744066.
– Sukaldaria edo sukalde-laguntzailea behar da Eibarko taberna batean. Egun erdirako kontratua. Esperientziarekin. Tel. 943-206868.
– Kamarera/o behar da asteburuetan egun guztirako. Curriculum-ak: eibarkafe@gmail.com
– Sukaldaria behar da Txioakan. Gida-baimenarekin. Tel. 686-913746.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Klase partikularrik emango nizkieke DBHko eta Batxilergoko ikasleei euren etxean. Tel. 672-382451.
– Unibertsitateko neska eskaintzen da ulermen arazoak dituzten umei klaseak emateko. Maila guztiak, banaka etxetan eta merke. Esperientzia. Tel. 625-019711.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematika etabar ematen dut. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Libreria motako altzaria salgai (1,95 x 0,38 x 2,08). Haritz egurrezkoa. 395 euro. Tel. 626-313899.
– Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. Tel. 943-572057.
– Neskaren jaunartze-soinekoa salgai. Egoera eta prezio onean. Tel. 653-010861.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Betaurreko graduatuak (estutxearekin) galdu nituen aurreko barixakuan, 23.30ak aldiari, Isasiko eskilaretatik Slow tabernara arteko tartean. Tel. 695-379921.
– Txamarra beltza galdu nuen aurreko astelehenean (urtarrilaren 25ean) T. Etxebarria eta Estaziño kaleen artean. Poltsa baten barruan zegoen. Tel. 690-311429.
– Betaurrekoak topatu nituen domekan Bilboko tren-geltokian partidurako bidaia-amaieran. Metalezkoak, txikiak eta obalatuak. Tel. 656-736509.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak



... GIRORIK ONENA!!!

koko-jantziak alaitasuna jaia

BOSSA

GURIDI RUGBY **STAR WARS**

Galaxietako gerak zu behar zaitu!!

Erdi Aroko antzerki giroan!

BAR BUENOS AIRES

XOK

TXUTXELANDIAREN munduan murgiltzeko

PARTXIS

Beleko TECHNO-AFTERRA

hirurok #BEATO #TXIMA #BALZA Dj-ak

Eibarko Klub Deportiboa
Club Deportivo Eibar

EZDOK ROCK
Di-KABRA



Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



20.000tik GORA PAZIENTE ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko
arreta jaso dezazun



www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**

mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**

mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com